

Bizitza interesgarriak

Nire lehenusina Maite 1989. urtean jaio zen, Soraluzen.

2007an, Bilbora joan zen, Biologia ikastera.

2011n, Biologiako 4. maila Azoreetan egitea erabaki zuen eta Erasmus beka lortu zuen.

2012an, itsasoan gidari-lanak egiten hasi zen Ponta Delgadan. Baleak, izurdeak eta beste animalia asko ikustera ateratzen zen itsasora, eta animalia horiek identifikatzen laguntzen zien turistei.

2013an, André izeneko gazte bat ezagutu zuen eta harekin maitemindu zen.

2016ko azaroan, Mexikoko Riviera Mayara joan ziren bizitzera. Lana bilatzen saiatu ziren, baina urte horretan ez zuten topatu.

2017an, urpean igeri egiten ikasi zuten, titulua lortu zuten eta urpekari-lanak egiten hasi ziren.

2017 eta 2022 urteen artean Mexikon bizi izan ziren, baina, oportretan, Euskal Herrira eta Azoreetara itzultzen ziren, familia eta lagunak bisitatzera.

2023an, Soraluzera itzultzea erabaki zuten eta ezkondu egin ziren. Orain, hurrengo abentura prestatzen ari dira.